

# MASTERCLASS DANTZA



Eibarko Udalak BaGOaz! koreografoekin batera, dantza MasterClass-a antolatu du

**Tramitatzailea:** Kultura

**Hartzaileak:** 2006. urtean edo lehenago jaiotakoentzat.

**Ordutegia:**

Goizeko 11:30etatik 13:00etara

**Ikastaroaren prezioa:** Dohainik

**Eskaera egiteko tokia:**

PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

**Nork emango du:** **BAMBOO taldeko** koreografoek

**Non eta noiz:**

Ipuru Kiroldegian, Pizinan gainetik dagoen dantza gelan. Maiatzak 4 larunbata

**Ikastarora ekarri behar den materiala:**

arropa eta zapatilla erosoak.

**Ikasle kopurua:** gutxienez 8 eta gehienez 50 ikasle

**Ikastaroaren hizkuntza:** euskaraz.

**Eskaera egiteko epea:**

apirilaren 23tik maiatzaren 2 arte (biak barne)

## Aurkeztu beharreko agiriak:

“IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA” izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus), eskuragarri).

Nortasun agiri nazionala eskatuko da emandako datuak egiaztatzeko.

Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa

## Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)), **2019ko maiatzaren 3an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehiengo ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehiengo ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **2019ko maiatzaren 3an 09:00etan**

Zozketa era honetan egingo da:

Zozketa egin aurretik ikastaroan izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda bat egingo da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.

Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat aterako da.

Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren webgunean egongo da **maiatzaren 3an eguerdiko 11:00etatik** aurrera.

**Informazio gehiago:** 943 708 435

# MASTERCLASS Dantza!

BaGOaz! programako koreografoekin dantza egiteko aukera paregabea